

## 1. IDEIAREN AURKEZPENA

Gure ideia zaborra ontzi mota ezberdinetan sailkatzen duen zaborrontzi bat sortzea da. Ontzi mota horiek guztiak zabor motaren arabera izango dira, hain zuzen, plastikoa, organikoa, kristalak eta paperak eta kartoak. Hondakin horiek sailkatzeko, **ontziak detektagailu bat** izango du eta, detektatzen duen zabor motaren arabera, **hondakinak** ontzi ezberdinetan **sailkatuko dira automatikoki**.

Zaborrontziak **fabrikatzeko atzerriko enpresa bat kontratatuko** dugu, **ekoizpenaz arduratu** dadin. Horrela, **kostuak aurreztuko** ditugu eta etekin handiagoak lortuko ditugu.